

Euskararen ERABILPENA LEKU PUBLIKOETAN

Lezori berariz dagozkion datoak ez ditugunez gero, Oiarztualdeko eskualdeari eta Gipuzkoa osoari dagozkionak ekartzen ditugu hona, eus kara zenbateraino erabiltzen den ohar gaitzen.

1.- Euskararen ezagupide maila eta erabilpen erreala

1º laukia: Euskararen ezagupide maila
eta erabilpen erreala

Euskararen ezagupide maila				Euskararen erabilpen erreala							
Hitzegiteko				Idatzia			Mintzatua				
	Zerbait	Ongi	Ezer ez	Euskaraz	Bietara	Erdaraz	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guzt
Oiar.	14,9	27,4	57,7	22,9	18,3	58,8	16,9	6,9	13,9	28,5	14,7
Gip.	15,0	39,8	45,2	25,5	13,5	61,0	25,6	16,4	25,3	36,2	25,0

Probintzia osoko datuak hartzen baditugu, ikus dezakegu euskara on gi eta zerbait hitzegiten dakitenak % 55 eskax baldin badira, euskara erabiltzen dutenak % 25era ez direla iristen eta berdintsu gertatzen dela euskara idatziarekin: % 25etik gora ez dela pasatzen euskaraz ba- karrik idatzirik dagoena, nahiz eta beste % 13,5 bi hizkuntzetan ida- tzia egon.

Euskara mintzatuari dagokionez, berriz, garbi agertzen da ezagupi- dearen eta erabilpenaren arteko desoreka.

Oiarztualdean ikus datekeenez, euskararen erabilpenaren proportzi- oak ezagupidearen erdia baino bajuagoak dira. Erabilpen mailan euskara erabat marjinala gertatzen da. Euskara asko edo gutxi ezagutzen dutene- tatik erabili erdiak baino askoz gutxiagok erabiltzen du (% 44,3 eta % 14,7).

2.- Euskararen erabilpena toki edo lekuei dagokienez

2º laukia: Euskararen erabilera
tokiei dagokienez

Toki/kalea	Enparantza	Parke	Pasealeku	Erosketa	Txikiteo	Pilota	Futbol	Beste jolas	Bataz bes
Oiarztualdea	14,3	15,6	17,2	18,0	15,8	13,7	3,2	16,6	14,7
Gipuzkoa	27,9	21,7	23,1	27,2	21,9	26,1	19,6	21,7	25,0

Leku edo tokien artean, diferentzia batzuk agertzen badira ere, ez dira esanahi haundikoak. Izatekotan ere, Gipuzkoa mailan, herriko enparantza nagusian eta pilota lekuan agertzen dira erabilpen aldeko zifra altuenak. Bajuenak, berriz, futbol zelaietan, parkeetan eta beste jolastoki berezietan (polikiroldegi, pizsina, e.a.).

Oiartzualdean, ordea, Gipuzkoako zifren aldean oso behetik ibiliaz gainera, pilota lekua eta enparantza datoz zifrarik bajuenekin (13,7 eta 14,3), futbol zelaikoaz aparte (3,2).

Datu hauek egiaztatzeko begiak ireki eta, batez ere, belarriak zabaldu besterik ez daukagu: kale bazterretan erdara nagusitzen dijoala, alegia. Euskara, berriz, haurren eta adinekoen hizkuntza bilakatzen ari da abiada bizian.

Beraz, har dezagun euskaldun garenok kontzientzi sendoago bat eta herri giroa euskalduntzen borroka gaitezen.

J.L. Aperribay

(1) Hemen erabilitako datoen iturria:

Siadeco - "Gipuzkoako lurraldean euskararen normalizaziorako plangintzaren lehen urratsak". 2. fasea: euskararen erabilpena Gipuzkoako lurraldean.

Gipuzkoako Foru Aldundia. 1.985eko urtarrila.